



Gipuzkoan, enpresetan pertsonen partaidetza sustatzeko programa.

Urtea :2018 | Ekonomia Sustapena

DESKRIBAPENA

Programaren helburua da sustatzea enpresen errotzea, jarraitutasuna eta lehiakortasuna, partaidetza aktibo, eraginkor eta erantzunkide baten bitartez.

ENTITATE ONURADUNAK

II. Eranskina:

Gipuzkoan dauden enpresak.

III. Eranskina:

- Gipuzkoan dauden enpresak eta empresa-elkarteak.
- EAEn kokatutako enpresa elkarteak, Gipuzkoan kokatutako enpresen interesak ordezkatzen dituztenak.
- Gipuzkoako erakunde sindikal adierazgarrienak.
- Gipuzkoan kokatutako unibertsitate publiko eta pribatuen zentroak, sailak, atalak, institutuak eta bestelako ikerketa-unitateak, eta partaidetzan, eta antolakuntza edo gizarte berrikuntzan espezializatutako ikerketa-zentroak.
- Gipuzkoako entitate edo elkarte estrategikoak, hezkuntza, ekonomia eta gizarte, toki edo eskualde izaerakoak, Gipuzkoako ekonomia-jarduerako zona edo sektore bateko eragile egokiak edo giltzarriak biltzen dituztenak, interesa dutenak lankidetzan aritzeko ikuspuntu integral bat garatu dadin enpresetan pertsonen partaidetza sustatzeko.

DIRU-LAGUNTZAREN XEDE DIREN JARDUERAK

Diruz laguntzeko moduko jarduketak izango dira helburutzat enpresetan pertsonen partaidetza eremu hauetan bultzatzea duten proiektuak:

II. Eranskina: Ezartzeko prozesuak:

III. Eranskina: Ikerketakoak eta arlo hauen garapeneakoak: tresnak, metodologiak, lanabesak, ebaluazio sistemak, hedapena, sozializazioa eta balorizazioa, eta esperimantazioa:

- partaidetza, kudeaketan
- partaidetza, erabaki estrategikoetan
- partaidetza, emaitzetan
- partaidetza, kapitalean.

Proiektu horiek proposatu eta garatu daitezke helburu hauek dituen jarduketa batetik: sendotzea eta garatzea antolakuntza-berrikuntza, lehiakortasuna eta jasangarritasuna, jarraitutasuna eta belaunaldi aldaketa, transmisioa, gizarte ekonomia, eta baita enpresa-berregituratze eta berrabiatze bereraino ere.



DIRUZ LAGUNDU DAITEZKEEN KOSTUAK

Diruz lagungarriak izango dira erakunde eskatzaileak aurkeztzen duen aurrekontu banakatu eta xehatuan jasotako kostuak, jardueraren garapenari zalantzarik gabe lotuta daudenean.

Barruko langileen kostuak direnean:

- II. eranskinean aurreikusitako proiektuak direnean, barruko langile kostuek ezingo dute guztizko kostu hautagarriaren % 25 gainditu, eta hautatzeko gehieneko muga orduko 35 euro izango da.

- III. eranskinean aurreikusitako proiektuak direnean, hautagarritzat jotzeko gehieneko muga orduko 69,29 euro izango da.

Kanpoko langile kostuak direnean kostuak hautagarriak izango dira, 69,29 €/orduko gehienez.

Proiektuan emandako orduen ziurtagiria aurkeztuko da.

Ez dira kostu hautagarriak izango zeharkako gastuak edo orokorrak, salbu eta III. eranskinean aurreikusitako proiektuen kasuan, kostu hautagarri gisa zenbatuko baita, justifikatu beharrik gabe, langileen zuzeneko kostu lagungarrien % 15 bakarrik.

Bidaia eta mantenu kostuak bakarrik izango dira hautagarriak proiektuak sustatzen ez dituzten entitateetako langileei dagokienez, baita III. eranskinean aurreikusitako proiektuak, non bidaiak eta mantenua proiektuaren berezko parte diren.

Gastu hautagarriak izango dira zuzenbide eta finantza aholkularitzako gastuak, eta diruz lagundutako proiektua gauzatzeko aditu-gastuak, baldin eta diruz lagundutako ekintzari dagozkionak badira eta hori ongi prestatu eta gauzatzeko ezinbestekoak badira.

DIRU-LAGUNTZEN ZENBATEKOA

Diru laguntzek ehuneko hauek izango dituzte: kostu hautagarrien % 75, enpresetan ezarpen prozesuak bultzatzen dituzten proiektuetan; eta kostu hautagarrien % 100, berriz, honelako proiektuetan: ikerketakoak eta arlo hauen garapenekoak: tresnak, metodologiak, lanabesak, ebaluazio sistemak, hedapena, sozializazioa eta balorizazioa eta esperimenezkoak.

EMATEKO PROZEURA

Laguntza emateko prozedura, lehiaketa bidezkoa izango da, deialdi eta hautapen prozedura bakar baten bitartez.

BATERAGARRITASUNA ALA BATERAEZINTASUNA

Diru laguntza hauek ez dira bateragarriak helburu bererako beste diru laguntza, sarrera edo baliabiderek, baita edozein administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatu nazional, europar edo nazioartekotik etortzen direnekin ere.



BETETZEKO EPEAK

- Eskaerak aurkezteko epea: **2018ko uztailaren 4an, goizeko 12:00etan amaituko da.**
- Jarduerak hasteko epea: **diru laguntza eskatu ondoren hasiko dira, urte naturalaren barruan.**
- Proiektuen exekuzio data: **2019ko ekainaren 28a**
- Proiektuak justifikatzeko data: **2019ko uztailaren 28a**

ARAUDI APLIKAGARRIA

[Gipuzkoan, enpresetan pertsonen partaidetza sustatzeko programa](#)

ESKAERA EGITEKO URRATSAK

- Informazioa eta dokumentuak

<https://www.gipuzkoa.eus/eu/web/ekonomia/programak-eta-laguntzak/partaidetza/partaidetza>

- Diru-laguntzak kudeatzeko aplikatiboa

<http://sustapena.gipuzkoa.eus/kudeaketa>

EDOZEIN ZALANTZA IZANEZ GERO, KONTSULTATU

EKONOMIA SUSTAPENEKO ZERBITZUA

- Kudeaketa administratiboa: 943.112227
- Kudeaketa teknikoa: 943.112217

sustapena.eraldaketa@gipuzkoa.eus